

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA

2022ko Otsailaren 4eko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratu direnak:

Jose Antonio Rodriguez jauna. Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeko presidentea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria (hemendik aurrera eLankidetz)

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatuz.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fundazioa ordezkatuz.

Noemí de la Fuente andrea, idazkaria, hitzarekin eta botorik gabe.

Gainera, presidentek gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira, hitzarekin eta

Alazne Camiña andrea, eLankidetzaren ordezkatuz.

Miguel Pérez jauna, Bilboko Udala ordezkatuz.

Aitor Gabilondo jauna, Gasteizko Udala ordezkatuz.

Ane Oyarbide andrea eta Silvia Carballo andrea, Donostiako Udala ordezkatuz.

Ezin bertaratu izana adierazi dute:

Monika Hernando andrea, Eusko Jaurlaritza ordezkatuz.

Itziar Urtasun andrea, EUDEL ordezkatuz.

Lekua: Aieteko jauregia (Donostia), Ghandi Gela.

Eguna eta ordua: 2022ko otsailaren 41, 10.00 h

2022ko otsailaren 4an, 10: 15ean, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeko lehendakari José Antonio Rodríguezek bilerari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkurako akta onartzea

2. Erakunde arteko ekimenak - ura:

- 2022ko martxoaren 22ko ekitaldiaren plangintza eta kanpaina

3. Erakunde arteko ekimenak - ataria:

- beste udalerrri batzuetara zabaltzeko erabakia
- hobekuntzei buruzko informazioa
- Hegoaren eginkizunaren balorazioa

4. (H) ABIAN 2030

- V. urteurrena ospatzea

5. Euskadiko GGKEen Koordinakundea

- plangintza estrategikoaren prozesuaren balorazioa
- Laguntzen koordinazioa

6. Hainbat testuingurutako egoera politikoari eta giza eskubideei buruzko eztabaida, dirulaguntzak emateari eta horien jarraipena egiteari buruzkoa eta har daitezkeen neurriei buruzkoa.

7. Espainiako lankidetzari eta lankidetzaren deszentralizatuari buruzko elkarrizketa

- autonomia-erkidegoen topaketa eta lankidetzaren
- Tokiko gobernuen eta lankidetzaren estatuko topaketa
- lankidetzaren zentralaren gaiaren egoera

8. GLEAB-ren funtzionamendua eta hurrengo bilerak

- bileren maiztasuna zehaztea
- 2022ko ekintza-planerako gaiak lehenestea

9. Saint-Louis – Egoeraren errebaso laburra

10. Hainbat, galde-eskeak

Aurreko bilkurako akta onartu da. Gai-zerrendako puntu guztiak jorratu dira, zazpigarrena izan ezik, eta talde teknikoarentzat gaiaren lehentasuna ezarri da (zortzigarren puntuko bigarren atala). Eta honako erabaki hauek hartu dira:

AKUAL:

- AKUAL-en logoa eta webgunea diseinatzen amaitzea, aurkezten diren aurrerapenetan oinarrituta, eta martxoaren 22an aurkeztea.
- Martxoaren 7rako berrestea zein agintarik parte hartuko duen erakunde bakoitzaren izenean AKUAL abiarazteko ekitaldian.
- Ekitaldiaren aurretik, sare sozialetan komunikazio-kanpaina bat egitea, operadoreekin eta URA-rekin koordinatuta, uraren nazioarteko egunari buruzko kanpaina instituzionalak ez dezan hura zapaldu.
- Erakunde bakoitzaren 2022ko ekitaldirako ordainketak lehenbailehen aktibatzea.

Ataria:

- Ataria UPV/EHUren zerbitzarietan egon arren, URLa erakundeen arteko ekimenaren ordezkari izateko nahia helaraztea Hegoari (hegoa.ehu.eus-en aurrean).
- Hegoa ekimenaren zatitzat hartzea (hasierako bultzatzailea delako), baina erakunde publikoek bestelako maila batean (laguntza teknikoa).

GLEAB-ren funtzionamendua:

- GLEAB-ren ohiko bi bilera egitea urtean, baina 2022an lege berria eta erakunde arteko proiektuak egiteko prozesuarekin lotura handiagoa izatea espero da.

Saint-Louis (Senegal):

- Saint-Louiseko korporazio hautetsi berria zoriontzea eta Euskadirekiko lankidetzaren berrespena eskatzea. Paul arduratzen da taldearen ordezkari gisa.
- Aurre-identifikazio bat egiteko aholkularitza-enpresa hautagaien bilaketan aurrera egitea.
- Lantalde eragile bat eratzea, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak, Euskal Fondoak eta eLankidetzak parte har dezaten.

Eta, besterik gabe, bilkura amaitutzat eman da.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA**

JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA**